



HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

DURANGO HAPO-RAKO GLOSARIOA

Durango Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren
baitako Herritarren Parte Hartze Programaren (HPHP)
parte da dokumentu hau, eta Aurrerapen faseari
dagokio.

Marina Blazquez Gonzalezek garatu du dokumentua,
Durangoko Udaleko Hirigintza Sailarekin koordinatuta.




Marina Blázquez
www.marinablazquez.com
hola@marinablazquez.com
+34 647 246 506

EDUKIAK



AURREKARIAK	4
ZERGATIK GLOSARIO BAT	5
AURREIKUSITAKO TIPOLOGIA	7
BALIO AGROLOGIKO ETA NATURAL HANDIA	9
BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA	10
EGUNEROKOTASUNA	12
EKIPAMENDUA	13
ERAIKUNTZAREN ANTZINATASUNA	14
GARRAIO PUBLIKOA ETA INTERMODALITATEA	16
HIRI-BERRONEROTZEA	18
IRISGARRITASUNA	20
JARDUERA EKONOMIKORAKO ERABILEREN BATERAGARRITASUNA	22
KONEKTAGARRITASUNA	24
KUTSATUTA EGON DAITEZKEEN LURZORUAK	25
LURZORU ARTIFIZIALIZATUA ETA LURZORU NATURALA GALTZEA	27
MUGIKORTASUNA	29
OSASUNA	31
SARE BERDEA	33
UDALAREN JABETZA	35
U HOLDE ARRIZKUA	36





AURREKARIAK

HPPren helburua, erakundeek eta norbanakoek lagunduta, informazioa eta ezagutza lortzea, arazoak eta eskaerak identifikatzea, iritziak jasotzea eta Durangoren etorkizunari buruzko jarrerak eta ikuspegia ezagutzeta da. Udalerriaren hiri- eta lurralde- antolamendua eratze-ko prozesu baliagarria eta onuragarria izatea espero da. Hala, hiru arlo hartuko dira kontuan:

- Parte-hartze instituzionala
- Parte-hartze teknikoa
- Herritarren parte-hartzea

Herritarren Partaidetzarako Programak zenbait jarduera proposatzen ditu aurrerapen-faserako, herritarren parte-hartzea sustatzeko Planaren erdiespenean.

Ekintzen artean, inkesta orokor bat egin da Udalaren webgunearen bidez, eta baita banakako elkarrizketak ere udalerriko eragileekin.

2021eko ekainaren 22an, saio didaktiko bat egin zen San Agustin Kultur Gunean. Saio horretan, oro har, HAPO bati aplikatutako hirigintzaren konplexutasuna azaldu zen. Bereziki, arauen esparrua landu zen, eskala guztietan, eta baita udalerriaren etorkizunerako kontuan hartu beharreko alderdi eta baldintza nagusiak ere.

Gainera, zenbait gai jorratze-ko saioak planteatu ziren. Gai horiek ingurune fisikoa, eguneroko Durango, jarduera ekonomikoak eta egoitzarekin zerikusia dutenak dira. Saio horietan HAPOrako helburuak eta irizpide orokorrak lantzea da asmoa.

Glosario honetan hainbat termino eta baldintza jasotzen dira, egindako saio tematikoen laburpen-dokumentazioa ulertzen laguntzen dutenak.



A



AURREIKUSITAKO TIPOLOGIA

Etxebizitzak eraikitzeko lursailetan ezartzen da bizitegi-erabilera. Etxebizitza berriak merkatu librean saltzeko edota babes publikokoak izan daitezke. Era berean, etxebizitzak salmentarako edo alokairurako izan daitezke.

Saioen aurretik egindako inkesten eta elkarrizketen arabera, dentsitate ertaineko tipologiak lehenesten dira, inguruan aisialdi-eremuak eta nolabaiteko merkataritza-jarduera dituztenak.

Etxebizitza-eraikinen oinarrizko tipologia hurrengo hauek dira: kolektiboa (etxebizitza-blokeak) eta etxebizitza isolatua (familia bakarreko eraikinak edo atxikitutako etxebizitzak).


Tipologia Kolektiboaren barruan, beste bi tipologia bereizi irudikatu ditugu:

MANZANAKO ERAIKUNTZA: kale batekin lerrokatzen diren eraikinak dira; eta, oro har, beheko solairua bide publikora irekitako zerbitzu- edo merkataritza-erabilerarako erabiltzen da.

ERAIKUNTZA IREKIA: aurretik bereizten da, eraikina inguratzen duen espazio pribatua duelako. Gaur egun, bizitegi-erabilera onartzen zaio beheko solairuan.



B



BALIO AGROLOGIKO ETA NATURAL HANDIA

Nekazaritza jarduerari lotutako da balio agrologiko handiko lurzorua. Nekazaritza eta basogintza arloko legeriak gizarte mailako onarpena sustatzen du lurzoru horretan, ez soilik elikagaien ekoizpenari dagokionez, baita beste gai batzuei dagokienez ere, hala nola ingurumena babestu eta birsortzea, paisaia eta bioaniztasuna zaintzea, lurraldearen kudeaketa orekatua eta habitataren eta kultura-ondarearen kontserbazioa.

Onura publikoko mendiak ere lurzoru mota honetan sartzen dira. Araudiak beste funtzio baterako erabiltzea baimentzen du, baldin eta planeamenduaren bidez balio agrologiko handikotzat har daitezkeen beste batzuekin konpentsatzen badira.



BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA

Esparru baten antolamendua gauzatzeko baldintzatzaile nagusietako bat da. Laburki esanda, bideragarritasun ekonomikoaren balio ahurrerengomoduan lortzenda: eraikinen salmentagatik aurreikusitako diru-sarrereri kentzen zaio plangintzak exigitzen dituen zerbitzuak ezartzeko eta beharrezkoak diren urbanizazio-obrak egiteko kostua.





EGUNEROKOTASUNA

Bizitegi-inguruneen kalitateari eta hiri-egiturari egiten die erreferentzia, eguneroko bizitzan egin beharreko ibilbideak errazteko. Hori lortu ahal izateko, ingurune mistoak sustatzea da gakoa, zerbitzuak hurbilago egon daitezen.



EKIPAMENDUA

Administrazioak edo partikularrek asetzen dituzten zerbitzu eta zuzkidurak dira, bizitza komunitarioaren garapen eta funtzionamendurako beharrezkoak direnak. Kategorizazio bat egin daiteke hainbat irizpide kontuan hartuz, eta horrela egin dugu, ekipamenduak honako erabilera hauetan bilduz: administrazio-erabilera, kultura-erabilera, irakaskuntza-erabilera, aisia- eta kirol-erabilera, eta beste erabilera batzuk.

Indarrean dagoen udal-araudiak ekipamendurako gordetzen dituen baina dagoeneko garatu diren lurzoru batzuk "zehaztu gabe" gisa identifikatzen dira. Kasu horietan, baliteke erabilera aldatzea berdegune berriak edo disuasio-aparkalekuak sortzeko.



ERAIKUNTZAREN ANTZINATASUNA

Eraikin bat zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta eskuhartze handiagoa behar da eraikina modu egokian irauteko; batez ere, ez bada behar bezala mantendu. Instalazioak eta materialak agortzen doaz eta berritu egin behar dira. Gainera, eraiki zirenean ez zegoen bete beharreko baldintza teknikoak arautzen zituen araudi espezifikorik, edo gauegun baino xumeagoa zen. Horren ondorioz, eraikin asko ez daude funtzionalki egokituta irisgarritasunari, zuntz-optikoari eta abarri buruzko araudi berrira; ez dira eraginkorrak energia aurrezteari dagokionez; eta ez daukate zarataren aurkako isolamendu egokirik ere.

50 urtetik aurrera, nahitaez egin behar da EIT (eraikinaren ikuskapen teknikoa). Honek konpondu beharreko eraikinaren patologiak identifikatzen lagunduko du. Eraikinean esku hartzeko premia handiagoa edo txikiagoa adierazten du ikuspaneraren txostenak, kasu zehatzaren arabera.



G



GARRAIO PUBLIKOA ETA INTERMODALITATEA

Pertsonak trenbidez eta errepidez garraiatzeari buruzko gaia da. Zerbitzua udal-mugaratean bakarrik ematen denean, eskumenak udalarenak dira. Bestela, eskumena beste administrazio batzuei dagokie, zerbitzua ematen den lurralde-eremuaren arabera (Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza edota Estatuko Administrazio Orokorra).

Intermodalitatea pertsonak edo ondasunak garraiatzeko ekintza da, hainbat garraio-modu erabiliz. Politika publiko hori, normalean, bidaiari-garraiorako geltoki multimodalen bidez gauzatzen da.





HIRI- BERRONERATZEA

Hiri-berroneratzea eraikinei eta hiri-sareei eragiten dien prozesu bat da, eraikinen eta espazio publikoengutxiegitasun edo degradazio egoerak daudenean martxan jartzen dena.





IRISGARRITASUNA

Ingurune fisikorako irisgarritasuna ahalbidetzeko oztopo fisikoak ezabatzea funtsezkoa da herritar guztiek gozatzeko aukera izan dezaten. Horregatik, irisgarritasuna bermatu eta erraztu behar da, ahal den guztietan, bai hirigintza-garapen berrietan, bai garapen horiek udalerriko gainerakoekin lotzeko orduan.





JARDUERA EKONOMIKORAKO ERABILEREN BATERAGARRITASUNA

Bizitegi erabilera duen eremu berean elkarren artean bateragarriak diren eta jarduera ekonomikoa sortzen duten erabilerei buruz ari gara. Bai eraikin berberen barruan, bai eraikin independenteetan, baina elkarri behar bezala lotuta; horrela, ingurune mistoak sortuko dira, mugikortasun motordunaren beharra murrizteko.

Bizitegi-erabilerarekin bateragarritzat jotzen dira ingurumenean ondorio esanguratsurik eragin behar ez duten jarduerak (gehiegizko zaratak, airean kutsatzaileak isurtzea, trafiko astuna, usain txarrak, etab.).



K



KONEKTAGARRITASUNA

Eguneroko bizitzarako erabilgarri dauden zerbitzuak zein distantzian dauden edo zerbitzu horiekin komunikatzeko erraztasuna dagoen hartzen du kontuan. Zerbitzu horiek garraioa, merkataritza eta ekipamenduak dira.



KUTSATUTA EGON DAITEZKEEN LURZORUAK

Lurzoru horietan, izaki bizidunen osasunari kalte egin diezaioketen substantziak transmititu ahal izan zaizkio lurzoruari. Ziurtasunik ez dagoenez, beharrezkoa da prozedura administratibo bat tramitatzea, atzeman ahal izateko, eta, halakorik bada, administrazio publikoaren kontrolarekin konpontzea.

Berreskuratzeko neurriak gauzatu eta emaitza positiboak egiaztatu arte ez da lurzoria erabiltzeko aukerarik izango udalaren planeamenduak finkatutako hirigintza helburuetarako.

Kutsatuta egon daitezkeen eta erabiltzen ez diren lurzoruak aukera bat izan daitezke jarduera ekonomikoko erabilerak birkokatze eta enplegua sortzeko.






LURZORU ARTIFIZIALIZATUA ETA LURZORU NATURALA GALTZEA

Lurzoru artifizialdutzat hartzen da eremu urbanizatu egonik, iragazkortasuna aldatu duena (zolatak, pabiloiak, zoladurak eta bestelako akabera gogor/iragazgaitzak, osasun-forjatuak, etab.)



M





MUGIKORTASUNA

Pertsonak bizi-premiak asetzeko dugun lurraldetik mugitzeko gaitasuna edo beharra. Mugitzeko behar horretan, hiri-mugikortasunaren (Udalaren ardura) eta hiriarteko mugikortasunaren (beste administrazio batzuenak) arteko aldea dago. Hiri-mugikortasuna:

Durango Mugikortasun Iraunkorreko Plana du (2010-2025). Plan horren oinarria barne- desplazamenduak modu jasagarrietan (oinez edo bizikletaz) lehenestea da, hirigunea babestuz.

Hiriarteko mugikortasuna: Autobus eta tren bidezko komunikazioa dauka Durango bi hiribururekin (Bilbo eta Gasteiz), eskualdeko ospitalearekin eta inguruko udalerriekin.






OSASUNA

Osasuna pertsonen oinarrizko eskubideetako bat da. Hirigintzak osasuna hobetzen lagun dezake honako ekintza hauen bitartez: oinez edo bizikletaz mugitzea erraztuz, espazio osasungarriagoak sortuz, ingurumenaren kutsadura eta kutsadura akustikoa eragiten duten guneak murriztuz, edo landaredia areagotuz, adibidez. Ondorioz, komenigarria da ibilbide osasungarriak sortzea eta daudenak hobetzea, sare berdearekin bat datozen oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideak, esaterako.



S




SARE BERDEA

Durangoko (Hiri) Sare Berdea ingurune osasuntsuagoa, atsegina eta iraunkorragoa ahalbidetzen duten espazioen sarea da, eta berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak eta airearen eta zarataren kutsadura murrizten ditu. Oinezkoentzako eta bizikletentzako eremuekin lotzen dira, eta korridore ekologikoen sare batean oinarritutako mugikortasuna ahalbidetzen dute.

Espazioak faktore berdearen eta sare osoan duten funtzioaren arabera bereizten dira. Faktore berdea iragazkortasunaren edo ura xurgatzeko ahalmenaren eta tokiko landarearen arabera definitzen da.

Nodo edo lokailu gisa duten funtzioaren arabera ere bereizten dira. Nodoak ingurumen- kalitateko espazioak dira, eta, gainera, zerbitzuak eta erabilerak dituzte, hala nola ekipamenduak, ostalaritza, komun publikoak, etab. Lokailuak nodoak lotzen dituzten espazio publikoak dira, eta lehen aipatutako oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideak eta sarea osatzen dituzte.



U



UDALAREN JABETZA

Jabetza udalarena izateak asko errazten du eremua kudeatzea.



U HOLDE ARRISKUA

Atzemandako arrisku mailaren arabera, baimendutako erabilera batzuk ezartzen dira, ahal den neurrian uholdeekin bateragarriak izan behar dutenak.

Informazio grafikoak 100 urteko orbana jasotzen du, eta hori errespetatu behar da uholde-arriskua ez handitzeko, adibidez, eremu horietan eraikin berririk egiteko baimenik ez ematea.

Arriskua murriztu egin daiteke, halaber, jarduera-proiektuen bidez, hala nola, ibaiaren ibilguan oztopoak kentzen dituzten obra hidraulikoak, drainatze-sistemak eta abar.

**ESKERRIK ASKO PARTE HARTU
DUZUNOI**

**GRACIAS A LAS PERSONAS
QUE HABÉIS PARTICIPADO**